



LANPOSTU HUTSEN PROPOSAMENEI BURUZKO ALEGAZIOAK AURKEZTEA

2022ko azaroaren 22tik abenduaren 5era, egun biak barne, alegazioak aurkeztu ahal izango dira.

- **Arabako Ikastetxeen Lurralde Burutza:**

- ✓ **Hezkuntza Sailburuordetzak kudeatutako ikastetxeak** (guztiak, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak kudeatutakoak izan ezik).

Alegazioak online inprimaki baten bidez bakarrik aurkeztu beharko dira. Formuliora esteka honen bidez sar daiteke (Sartzeko XInet-eko erabiltzailearekin identifikatu beharko da):

https://www.hezkuntza.net/w58MantenimientosWar/formularioswebJSP/w58modificarformulario.do?accion=KEY_PREVISUALIZAR&idFormulario=38041&idioma=es

Alegazioa aurkeztean, formularioan ezarritako testu-eremuaren tamainara egokitzea gomendatzen da, Ordezkaritzak eta sindikatuek hobeto uler dezaten.

Lotura horrekin edozein konexio-arazo izanez gero, CAUrekin kontsultatu beharko da: 945 20 72 56.

Formularioa betetzeari buruzko beste edozein zalantza izanez gero, Arabako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako Ikastetxe eta Plangintza Unitatearekin harremanetan jarri beharko da.

- i-elu@euskadi.eus (945 01 72 54)
- huisa023@euskadi.eus (945 01 72 31)

- ✓ **Lanbide Heziketako Sailburuordetzak kudeatutako ikastetxeak.** Alegazioak dagokion idazkiaren bidez aurkeztu beharko dira, eta Hezkuntzako Arabako Lurralde Ordezkaritzako Lanbide Heziketako Unitateari bidali beharko zaio.

- **Bizkaiko Ikastetxeen Lurralde Burutza:**

- ✓ **Hezkuntza Sailburuordetzak kudeatutako ikastetxeak** (guztiak, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak kudeatutakoak izan ezik).

Alegazioak online inprimaki baten bidez bakarrik aurkeztu beharko dira. Formuliora esteka honen bidez sar daiteke (Sartzeko XInet-eko erabiltzailearekin identifikatu beharko da):

<https://educacion.hezkuntza.net/group/ikastetxeak>



Alegazioa aurkeztean, formularioan ezarritako testu-eremuaren tamainara egokitzea gomendatzen da, Ordezkaritzak eta sindikatuek hobeto uler dezaten.

Lotura horrekin edozein konexio-arazo izanez gero, CAUrekin kontsultatu beharko da: 945 20 72 56.

Formularioa betetzeari buruzko beste edozein zalantza izanez gero, Bizkaiko Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako Ikastetxe eta Plangintza Unitatearekin harremanetan jarri beharko da.

- jm-blazquez@euskadi.eus / m-lekue@euskadi.eus
- 94 403 11 00 / 94 403 10 46

- ✓ **Lanbide Heziketako Sailburuordetzak kudeatutako ikastetxeak.** Alegazioak dagokion idazkiaren bidez aurkeztu beharko dira, eta Hezkuntzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzako Lanbide Heziketako Unitateari bidali beharko zaio.

- **Gipuzkoako Ikastetxeen Lurralde Burutza:**

- ✓ **Hezkuntza Sailburuordetzak kudeatutako ikastetxeak** (guztiak, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak kudeatutakoak izan ezik).

Alegazioak dagokion idazkiaren bidez aurkeztu beharko dira Gipuzkoako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako Ikastetxe eta Plangintza Unitatean:

- Yolanda Mendez huisg015@euskadi.eus 943 02 28 55
- Begoña Martinez huisgrpl@euskadi.eus 943 02 29 34
- Ana Centeno am-centeno@euskadi.eus 943 02 28 54

- ✓ **Lanbide Heziketako Sailburuordetzak kudeatutako ikastetxeak.** Alegazioak dagokion idazkiaren bidez aurkeztu beharko dira, eta Hezkuntzako Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako Lanbide Heziketako Unitateari bidali beharko zaio

Ondorengoak dira lanpostu hutsen proposamenetan ageri diren zutabeak:

IKASTETXEKO LPZ: Ikastetxe bakoitzeko LPZn sartutako plazak dira. Lanpostu berezi gisa edo lan-kontratuko langileentzat edo Irakaskuntza Ertaineko Institutu Teknikoetako Irakasleen Kidegoko funtzionarioentzat gordetako plaza gisa definitutako plazak ez dira lekualdatze-lehiaketa honetan eskainiko.

LEHIAKETAKO LANPOSTUAK: Ikastetxeko lanpostuen zerrendan egoteaz gain, Ikastetxe eta Plangintzaren eta Plangintza eta Antolaketako Zuzendaritzan iritziz lekualdatze-lehiaketako plazen eskaintzan sartzeko eskatzen diren irizpideak betetzen dituzte



ATXIKITAKO IRAKASLEAK: Behin-betiko destinoa ikastetxean duten irakasleak dira eta ikastetxe horretako lanpostu bati daude atxikita, nahiz eta praktikan ikastetxean bertan egon eskolak ematen edo, beharbada, beste tokiren batean.

LEKUZ ALDARAZITAKO IRAKASLEAK: Lekuz aldaraziaren izaera duten irakasleak dira, baina lanpostu bat betetzeko eskubidea dute, aukera hori sortzen den unean.

GORDETAKO LANPOSTUAK: Aurreko bi zutabeetako egoerak batzearen ondorioa da. Atxikitako irakasleak eta lekuz aldarazitakoak batuz gero, lanpostua guztira zenbat irakasleri gorde beharko zaien jakingo dugu.

LEKUALDATZE LEHIAKETAKO LANPOSTU HUTSAK: “Lehiaketako lanpostuak” eta “Gordetako lanpostuak” zutabeen arteko kenketa da. Kenketaren emaitza positiboa bada, lekualdatze-lehiaketan eskainiko diren lanpostu hutsak lortuko dira.

ESTALITAKO BIGARREN ALDIKOAK: “Lehiaketako lanpostuak” eta “Gordetako lanpostuak” zutabeen arteko kenketa da. Kenketaren emaitza negatiboa bada, lekualdatze-lehiaketan estali beharreko lanpostuak zeintzuk diren jakingo dugu, hau da, lanpostu horiek, nahiz eta ikastetxeko irakasle bat lekuz aldatu, ez dira lanpostu huts bezala eskainiko, espezialitate eta hizkuntza-eskakizun horretako beste irakasle batentzat gorde beharko baitira, atxikitakoa edo lekuz aldarazitakoa.